

## **HONDAKIN TAILERRAK 2013**

Baztango Udalak, Nafarroako Gobernuako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroaren laguntzaz ikasleendako **Hondakinei buruzko tailerrak** eskeini ditu aurtengoan ere, hiri hondakinen gaikako bilketa eta prebentzioa sustatzeko xedez.

Ekimen hau Nafar Gobernuak Beira eta Hondakin Elektriko eta Elektronikoen Kudeaketa Bateratuaren Sistemen entitate kudeatzaileekin hitzartutako arloan kokatzen da, Nafarroako 2010-2020ko Hondakinen Kudeaketa Bateratuaren Planaren helburuei loturik. Helburu horietan, hondakinen eremuan sentsibilizatu asmoz formakuntza, informazio eta ingurumen hezkuntzako aktibitate ezberdinak burutzen dira.

Langile adituek zuzentzen dituzten eta ikastetxeendako doakoak diren tailer hauek, oraingo honetan LHko 1. eta 2. mailako ikasleei eskaini zaizkie. Tailer hauen bidez, ikasleak prebentzio eta birziklapenean oinarrituriko hondakinen kudeaketa egoki baten garrantziaz informatu eta sentsibilizatu nahi dira, ingurumenaren zainketa eta hiri hondakinen gaikako bilketaren kalitatea nahiz kantitatea hobetzen lagun dezaten.

Baztanen, eskeintza onartu duten ikastetxeetan 11 tailer egingen dira osotara eta 200 ikasle inguru pasako dira hauetatik. Hauek urriak 3- 8 bitartean izanen dira.

Aurtengoan, tailerrak aprobeztatuz Baztango Udalak Bortziri eta Malerrekako Mankomunitateekin batera, PREBENTZIO kanpaina gehigarri bat jarri nahi izan du martxan eta hala, ikastetxeetan gosaltzeko orduan sortzen diren hondakinak murrizteko intentzioarekin, ikasleei gosaria biltzeko oihalezko bilduki berezi bat (*Boc´n rolla* deitzen dena) banatuko zaie. Prebentziosko akzio honen bitartez lehen hezkuntzako ikasleek gosarirako erabiltzen duten aluminio papera, plastikoa edo papera gutxitu nahi da, honen ordeztu bilduki berrerabilgarri bat erabiliz eta honela sortutako hondakinak gutxituz.

Udalak Ecoembesen dirulaguntza bati esker lortutako ia 500 *Boc´n roll* banatuko ditu Baztango lehen hezkuntzako ikasle guztien artean. Ekintza honetan familia eta irakasleen inplikazioa ezinbertzekoa denez, ikastetxeetatik etxetara bidaltzeko eskutitz bat prestatu da bilduki berri honen erabiltzean familien inplikazioa ere eskatuz.

